

» gogoeta

# Amatasuna eta kartzela

**MAITE DIAZ DE HEREDIA**  
EUSKAL PRESO OHIA

**T**eorian ama izatea erabaki pertsonala eta libre da. Espetxean egonik, aldez, ama izatea ez da erabaki erraza. Eta ez da erraza erabaki hori ezin duzulako bakarrik hartu, ez zarelako guztiz libre. Kasurik onenean ama eta alaba/ semea aldi berean aterako dira kalera. Baina gehienetan, aldez, badakizu izango duzun ume hori zurekin egongo dela baina epe zehatz batean ume horrek zuregandik alde egin beharko duela. Eta batzuetan ume horren ardura hartuko duena aurkitzea/erabakitzea erraza izango da. Baina beste batzuetan ezin izango duzu asmatu umea noren eskuetan utzi. Kasurik onenean gerta daiteke erabakia hartu eta haurdun geratzea berehala lortzea. Baina, mundu guztiak dakien bezala, gaur egun gero eta arazo gehiago agertzen da haurdun geratzeko, eta espetxean egonda ez duzu arazo horiek aztertzeko eta gainditzeko inolako laguntza medikorik izango. Kasurik onenean bikotearekin egoteko aukera izango duzu aldiro, espetxe berean zaudelako edota kanpotik etortzen zaizulako. Baina askotan bikotea beste espetxe batean dago, edota estatu frantsesean —non aurrez aurrerakoak ez diren existitzen ere—, eta orduan harremana ezinezkoa da. Kasurik onenean heterosexuala zara eta bikotea duzu, eta horrek gauzak errazten ditu. Baina batzuetan gertatzen da homosexuala zarea edo bikoterik ez duzula. Eta kalean beti izango zenuen zirrikituren bat aurkitzeko parada. Espetxean egonez gero ez dago ezer egiterik.

«Kasurik onen» horietan guztiarian egonda ere, giltzapetuta zaudenean ama izatearen erabakia ez da batera erraza. Jende askok, teoriarik ikuspun-

tu aurrerakoi batetik ere, umearen ongizateari begira, amaren erabaki hori erabaki berekoi bat dela dio edota pentsatzen du. Ideia horri atxikitzen bagatzaizki, Euskal Herriaren sektore oso handi bati ama edo aita izateko eskubidea *de facto* ukatzen ari zaio. Teoriarik behintzat, gaur egun eta gure gizartean, umeen ongizatea lehendabiziko kezka da.

Baina ikuspegi aurrerakoi batetik ezin diogu inori amatasuna ukatu. Aldiz, amatasunak dakartzen oztipoak gainditzeko laguntza eman behako genioke, ezta? Umeek eskubideak dituzte, jakina, eta gure gizartean kezka hori izatea berez oso osasuntsua da. Baina preso dauden emakume eta gizonen kasuetan umearen eskubide horiek garatzeko konponbide bakarra umeak ez izatea baldin bada, jai dakugu euskaldunok! Euskaldun batzuek, bederen.

Horregatik uste dut eztabaida haurdunaldiaren eta umeen baldintzen inguruko izan beharko litzatekeela. XXI. mendean ez da normala emakume batek bakarrik erditu behar izatea, nahiz eta preso egon. Ez da normala, segurtasuna aitzakia, familiari jaioberria ezagutu ahal izateko hamaika oztipo jartzea. Ez dira normalak behar duzun material guztia eskuratzeko dituzun arazoak. Ez da normala amen modula espetxearen barruko beste espetxe bat izatea. Ez da normala barruan dagoen bitartean etxekoak ez di-

**Ikuspegi aurrerakoi batetik ezin diogu inori amatasuna ukatu. Haurdunaldiaren eta umeen baldintzen inguruko izan beharko luke eztabaidak**

renek —lagunek, alegia— umea ezagutu ezin izatea. Ez da normala amen modulutik ateratzeko umeak arrotzen eskuetan utzi behar izatea. Ez da normala espetxe batzuek oinarritzko baldintzak ere ez izatea. Ez da normala umea hizkuntz arrotz batean hazi behar izatea. Ez da normala familiarrek umea ikusteko milaka kilometro egin behar izatea. Ez da normala umea behin beriko ateratzen duzunean elkarrekin egoteko hila batean aukera bakarra baino ez izatea. Espetxean umeak ematen duen denbora ez da beti berdina, baina estatu espainolean hiru urte eta estatu frantsesean urte bat eta erdiz egon daitezke ama eta umea elkarrekin, eta denbora horretan hogeita lau orduz egoten dira elkarrekin, eta ez da normala harreman estu hori hain bortizki apurtzea. Ez da batera normala ume bat xantxia-tresna gisa euskal preso politikoko baten kontra erabiltzea: ekografia egiten duzun bitartean polizia aurrean izatea, edo eskuburdirak ipinita, umeen aurrean araketak egitea, erditu eta egun gutxira, oraindik esertzeko gai ez zarenean, traslado bat izatea. Ez dira gauza normalak baina gertatzen dira.

Inoiz baino emakume gehiago dago espetxeetan, inoiz baino euskal emakume borrokalaria gehiago dago preso, eta inoiz baino ama eta ume gehiago dago espetxean. Ez, ez da erraza ume bat espetxean izatea, eta are gutxiago halako giro batean haztea. Baina ama izateko erabakia hartzen duzunean, edonon egonik ere, erabaki pertsonala eta izugarri polita da. Arazoak izango dituzula argi dago; barruan egonda, izugarriak. Baina zin egiten dizuet barruan egonda ere ama izateak ematen ditzizun indarra eta bizipoza izugarriak direla. Eta nik barruan ikusi ditudan umeak zoriontsuak dira beraien amaren ondoan. Eta barruko eta kan-

poko elkarrekin eta laguntzak betetzen dituzte agertzen diren zuloak eta gabeziak.

Haurdun nengoelarik, preso sozial batek, erdi lortsatuta erdi jakin-minez, horrela galdetu zidan: «... baina zuok, euskal preso politikok (beno, ziurrenik 'ETakook' edo halakorik esango zuen berak), ez al daukazu ama izatea debekaturik?». Irribarrez erantzun nion ezetz, ez zela horrelakorik. Baina, egia esan, egoerak eta egoerak daude, eta euskal preso askok bere amatasun nahiari uko egin behar izaten dio. Izateko debekuekin egiten dute topo. Horrelakorik ez gertatzeko gure babesa behar dute, eta gure borroka ezinbestekoa da. Ama izateko baldintzarik onena zein den argi dago: askatasun-aren egotea. Baina euskal preso politikok dauden bitartean euren ama izateko eskubidea errazteko beharrea gaude.

Orain dela gutxi beste txikitxo bat jaio berri da kartzelan, eta beste bat etortzeaz dago. Ongi etorriak biak, eta ongi etorriak helduko direnak, etorri zirenak ongi etorriak izan ziren bezalaxe. Alize, Amaia, Ainhoa, Maitane, Kristina, Alaitz eta ama zareten guztiak, musu handi-handi bana. Eta, nola ez, besarkada bana losu eta aita zareten guzteei (zuona ere ez baita makala, gaurko gaia ez izan arren). Eta, bereziki, besarkada handi bana ama izatea nahi duzen eta ezin duzuenontzat. Guztiontzat, PA!

**Nik barruan ikusi ditudan umeak zoriontsuak dira amen ondoan. Euskal presoek ere ama izateko eskubidea erraztu behar diegu**

## Iratzar

**JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA,**  
**'TXILLARDEGI'**  
IDAZLEA

**A**rana-Goiri oinarritzat harturik ari dela dioen Alderdiak, Independentziaren beharra isekatzaren duenean, eta Euskal Estatuana anarkonikotzat salatzen; eta, horren ordez, Espainia barruan kokapen egoki bat proposatzen duenean («*nuestra meta es una solución tal que los vascos nos sintamos cómodos en España*», gogoratzen zarete?), iratzarri egin behar dugu denok.

Eta gauzak gordinki esateko ausardia izan.

Zoritzarrez, zenbait urtez diximulu-

tan ibili ondoren, PNV estatismo espainolistan sartu da. Eta erregionalismorik merkeenean jokatu nahi duela aldarrikatzeko ez du loutsarik. Zer ondoriozta dezake barokotzar batek, adibidez, ikuskari honetan? Zer Euskal Herri Askatuan eta Batuan amesten duen beste batek?

Hori bakarrik ez.

Gasteizko Legebiltzarrak onartu zuen Ibarretxe Planari agur. Zapaterok emandako ostikoa ahaztu. Eta «transferentziak» aipu. Alegia: Gora Ajuria Enea, eta itzul gaitetzen Gernikako Estaturura.

Jakina. Madrilék berehala ulertu du egoera berria, eta pozkariotan dago ezin sosegaturik: «*El PNV ha vuelto al lugar que nunca debió haber abandonado*.

*Con el señor Imaz se puede hablar*».

Eta Ertzaintzak ere berehala ulertu du bere eginkizuna: espainiar legetasuna errespetatu eta errespetaraztea. Eta abertzaleek ez baitugu legetasun hori onartzean, egurra hartzea tokatuko zaigu.

Giro horretan gertatu dira Imanol Gomezzen heriotzaren ondokoak. Haren oroitzapenezko ekintzak debekatzeko gauzatu da hasteko. Berau abertzale eta euskaltzalea zela garbi agertu delarik. Nahiz debeku hori probokazio hutsa izan.

Josetxo Ibazeta zinegotziaren kolpaketa lotsagarri eta larria gertatu da segidan. Hiru ornoen hausketaz.

Eta aurrekoan, Larratxon, beste gertakari larri mordo bat, aurkitu diren

bala-zorroek ongi frogatzen dutenez.

Eta orain, ginga: Ertzaintzak atxilotutako hiru gazteak, Madrilera. Kolaborazio galanta, Balza jauna.

Egoeraren larria azpimarratu beharrik ez dago.

1895ean gaude berriro. Urte hartan «aski da» esan zuen Arana-Goirik; eta euskal karlismoa estatalismo espainolean bateginda zegoela ulerturik, eta aurrera jo zuen.

Ezker abertzaleak (ofizialak eta besteak) pausoa emana du. EA zalantza nabarmenean dago, ezinbesteko urratsak zenbait ikaraturik. PNV barruan oraindik dauden abertzaleek (baldin badaude) orain dute mementoa «aski da» esateko.

Aski baita. Eta sobera ere bai.